

Jasone Osoro

BI MARRA ARROSA



© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Jasone Osorok OBRARENA
© Lander Garroko GIBEL SOLASARENA

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2009ko azaroa

Editorial Txalaparta e.m.l.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Gráficas Lizarra
Carretera a Tafalla, km. 1
31132 Villatuerta NAFARROA

ISBN
978-84-8136-565-8
LEGE GORDAILUA
NA. 3.139-09

txalaparta



Dunari eta Edithi

Maratoi sutsu batekin hasten da dena...

NILS TAVERNIER, *L'Odysée de la vie*

Lehenengo
hiruhilekoa

Haurra zelula izatetik enbrioi izatera pasatuko da eta hiruhilekoaren amaierarako fetua sortuko da. Organoak garatzen hasi dira: bihotza, zilbor-hestea, begiak, belarriak, eskuak, oinak, atzamarrak, burmuina...

Hiru hilabeterekin fetuak 10 cm neurtzen du eta 45 gramo inguru pisatzen. Lehen ekografia egiteko garaia da.

Amaren sintomak

Fisikoak

Botagura, odola, bularrak eta gorputza puztuta, haizeak, nekea, energia falta eta logura, txiza egiteko gogoia ohi baino maizago, usaimena oso garatuta, nazka, zorabioak, baginako fluxua ugariagoa, tripa handiagoa.

Emozionalak

Umore aldaketak, suminkortasuna, negar egiteko gogoia, zalantzak, beldurak, poza...

*Urduri gaude. Azkeneko hilekoa urtarrilaren
27an jatsi zitzaidan eta momentuz ez dago
arrastorik.*

DARDARKA NAGO. Bihotza azeleratua daukat. Takikardia modukoak. Bi marra arrosa atera dira. Bai? Benetan? Berriro begiratuko dut, badaezpada. Izan ere, bi marra arrosa direla dirudi, baina marra oso-oso finak dira. Oso suabeak. Berriro begiratuko dut informazio-orria. Ea zer jartzen duen: «Bi marra arrosa agertzen badira, haurdun zaude». Beraz... haurdun nago? Bai? Ai ama... Hau poza! Eta beldurra! Bihotza azeleratua berriz ere. Ez dakit zer egin, non sartu. Eta... Emaitza ez bada behin betikoa? Esan nahi dut, akaso posible dela haurdun ez egotea, nahiz eta testean bi marra arrosa agertu diren. Bi marra arrosa fin. Ea zer jartzen duen informazio-orrian: «Emaitza positiboa bada, ez dago zalantzarik, haurdun zaude». Ez dago atzera bueltarik. Haurdun nago. Miraria nire gorputzean gauzatu da.

Halere, ez dut ezer sentitzen nire barnean. Soilik urduritasuna eta poza. Inoiz baino zoriontsuagoa naiz une honetan. Energiatz betetik sentitzen naiz. Edozer egitek o ausardiarekin. Eta dagoeneko maite dut nire barnean hazten ari den izaki hau. Izaki ñimiño hau.

Lasaitu egin behar dut. Urduri egoteak ez dio mesederik egingo umeari. Ea bihotza baretzen zaidan. Arnasa sakon

hartuko dut. Beste zerbaitetan pentsatuko dut. Ezin dut!
Nire buruan ez dago beste irudirik: bi marra arrosa. Haur-
dun nago. Nire bizitzako etapa berri bat hastera doa. Bidaia
zoragarria. Ezezaguna. Zalantzas betea. Beldurrez gainezka.

Eta orain zer egin behar dut? T estak haurdun nagoela
esan du. Ados. Eta? Orain? Emaginari deituko diot. Txanda
hartuko dut. Berak emango dizkit argibide gehiago.

*Emaginarekin egon naiz. Pisatu egin nau,
zitologia egin dit, nire osasun-bizitzari
buruzko hamaikatxo galdera egin dizkit eta
erditze-data jarri dit: azaroaren 3a.*

URDURI ORAINGOAN ERE. Bi marra arrosa horiek hankaz gora jarri dute nire bizitza. Kirioak dantzan esnatzen naiz eta urduri oheratzen. Profesional batek benetan haurdun nagoela esan arte, ez naiz erabat ziur egongo. Izan ere, liburuetan jartzen duenez, haurdun geratzen zarenean botagura izaten duzu, bularrak handitzen zaizkizu, goizean zorabioak senti ditza-kezu, hainbat jakik nazka ematen dizute, logura izaten duzu... Bada, nik ez dut sintoma horietako bat bera ere. Beraz, posible da haurdun ez egotea. Emaginak dena argituko dit. Hala espero dut. Urduri nago. Erabat ezjakina naiz gai honetan eta erreparo pixka bat ere ematen dit g alderak egiteak. Halere, kontsultan eseri naizen unean atera zait esaldia ahotik: «Haurdun nago». Zalantzak joan zaizkit. Instintiboa izan da. Nire baitan argi bat piztu izan balitz bezala. Nik bakarrik senti dezakedan zerbaitek esan dit baietz, haurdun nagoela.

Emaginak ez dit bestelako testik egin. Ez dit bi aldiz gal-
detu ea ziur ote nagoen. Ez du jakin nahi izan zein test mota
egin dudan, nola dakidan haurdun nagoela, noiz izan nituen
harremanak nire bikotekidearekin... Berak egin didan lehen
galdera hau izan da:

Noiz jaitsi zitzaizun azkenekoz hilekoa?

Jarraian, libreta bat hartu eta bertan nik emandako data idatzi du: urtarrilaren 27a. Gero, erruleta baten antza daukan gauza batekin erditze-data kalkulatu dit. Eta horixe izan da haurdunaldi-libretan zehaztu duen bigarren datua: azaroaren 3a.

Alergiak, ebakuntzak, gaixotasunak... Edozein medikuk egiten dizkizun galdera tipikoak egin dizkit emaginak. Gero ekografia eta odol-analisiak egiteko txartelak eta bi txizapote eman dizkit.

Eta kitto. Ez dit ezer galdetzeko astirik eman. Eta milaka galdera ditut buruan! Kirola egin ahal dut? Denetik jan dezaket? Zenbat? Sexu-harremanak izan ditzaket? Haurrari zerbait gertatzen bazaio nola jakingo dut? Ziur haurdun nagoela?

Ez diot ezertxo galdetu. Baina kontsultatik haurdunaldi-libretarekin atera naiz. Eta erditze-datarekin: azaroaren 3a.

Amari esan diot. Hustu beharra nuen. Mundu osoari kontatu nahi diot nire sekretua, baina ez dakit komeni den, badaezpada.

ZER EGIN BEHAR DUT ORAIN? Esan nahi dut, 40 aste bete arte ez dudala nire umearen aurpegia ikusiko. 40 aste luze pasatu arte ez ditut bere eskutxoak laztanduko. Ez dizkiot begitxoak ikusiko. Ez dut haren ilearen kolorea zein den jakingo.

Nik eta nire bikotekideak bakarrik dakigu, momentuz, azaroan jaioko dela gure estreinako haurra. Gure sekretua da. Eta horrek oso berezia den harremana sortu du gure artean. Lotura sendoa. Amaierarik ez duen maitasuna. Oraindik ia deus ez den enbrioi batekiko maitasun amaigabea. Gurea da sekretua eta sekretu horren jabe izateak indar berezia ematen digu. Bizitza sortu dugu eta horrek boteretsu egin gaitu bat-batean. Bizitzan edozer egitea posible balitz bezala. Miraria sortu dute gure gorputzek. Nire bikotekidearen espermatozoide bizkorrena nire obuluarekin elkartu da. Eta bien emaitza izan da une honetan nire baitan hazten ari den umea. Dena hain da haluzinantea! Sinestezina! Oihuka hasi nahi nuke. Mundu guztiari kontatu nahi diot zer ari naizen bizitzen. Zeinen zorionsua naizen. Nire inguruko guztiek haurdun nagoela jakitea nahi dut. Maite ditudan pertsonekin konpartitu nahi dut nire zoriona. Banan-banan kontatu nahi diet baietz, niri ere iritsi zaidala ordua. Haurdun nagoela.

Baina goizegi da. Goizegi al da? Gaur egun ia jende guztiak lehen 12 asteak bete arte itxoiten du haurdunaldiaren berri emateko. Hiru hilabete horiek berebiziko garrantzia omen dute. Lehen aste horietan sortzen da bizitza. 12 aste horietan sortzen da plazenta. 3 hilabete behar ditu enbrioak garatzeko: bizkarrezurra, eskuak, oinak, burua... Pertsona baten egitura hartzeko behar duen denbora 12 aste omen dira. Eta tarte horretan edozer gerta daitezke. Baita haurra galtzea ere. Horregatik erabakitzen du jende gehienak hiru hilabeteren buruan ematea albistea. Aurretik kontatu eta gero zerbait gertatuko balitz... Azalpenak eman behar, jendearen errukia jasan behar...

Baina nik ezin dut sekretua niretzat gorde. Norbaiti kontatu behar diot. Amari. Eta aitari. Eta ahizpari. Eta nire lagun minari. Beste inori ezer ez esateko eskatuko diet. Oraindik oso goiz dela eta edozer gerta daitezkeela eta...

Zure sekretua zena beste batzuen eskuetara pasatzeak lasaitasuna ematen du. Zure poza beste batzuekin konpartitzeak are zoriontsuago egiten zaitu. Nahiz eta zure baitan badakizun sekretu hori ahoz aho ibiliko dela berehala. Zure ingurukoei ere eztanda egingo diela sekretuak ahoan eta dinamita bezala zabalduko dela, di-da. Laster hurreratuko zaizu bizilagunen bat zorionak emanetz. Edo ezagun horrek kalean geratuko zaitu berria jakin duela esanez, eta pozten dela, eta ea neska edo mutila nahi duzun galdetuko dizu.

Eta zu zoriontsu. Sekretua zabaldu delako. Eta mundu guztiak jakin duelako zeinen zoriontsu zaren. 12 asteak pasatuko dira. Dena ondo aterako da. Munduan milioika haur jaiotzen da egunero. Nirea azaroan jaioko da. Badakit.

BOTAGURA

*Botagura, oka, botaka egiteko gogoa.
Larritasuna sabelean, eta nazka. Egonezina.
Nahieza. Hau al da haurdun egotea?*

ESNATU BEZAIN PRONTO SENTITU DUT BOTAGURA. Oka egiteko gogoa. Larritasuna. Nazka. Higuina. Hau al da liburuetan azaltzen dena? Sintomak: nekea eta logura, oka egiteko gogoa, usaimenaren garapena, hainbat elikagairekiko nazka, zorabioak, txiza egiteko gogo gehiago... Ai ama! Gaixorik egotea bezala da-eta! Hasieran kezkatuta nengoen ez nuelako ezertxo ere sentitzen. Hain ondo nengoenez, agian ez nintzela haurdun egongo pentsatu nuen. Zorionekoa ni estreinako lehen aste haietan! Ez nuenean ezertxo ere sentitzen! Oraindik zazpi aste inguruko haurdunaldia daukat, eta egun osoa ematen dut oka egiteko gogoz. Oka egin gabe, baina larri. Egun osoa pasatuko nuke jaten. Goseak amorratzen bizi naiz, eta jatea da nire larrigura baretzen duen bakarra. Baina, jan eta gero, ostera botagura sentitzen dut. Eta nekea. Ohean sartu eta epeletan egoteko gogoa. Beharra. Gaixorik egongo banintz bezala. Pasatuko dela esaten didate. Normala dela horrela egotea. *Normala* hitzak lasaitu egin nau. Haurdun zaudenean kezka beteta daukazu burua eta *normala* hitzak dena ondo dagoela esan nahi du. Gaixorik egongo bazina bezala sentitzeak, beraz, haurra ondo ari dela hazten esan nahi du. Eskerrak!

Baina ni biguinduta nago. Ilusioa ere joan zait, pentsa. Nekagarria da egun osoa erdi zorabiatuta pasatzea. Ez duzu ezer egiteko gogorik. Denbora osoa ea zure onera noiz etorriko zaren zain. Ea oka egitek o gogo hori noiz desagertuko den. Hozkailura joan eta edozer jateak soilik lasaitzen zaitu. Arratsaldeko lauretan entsaladilla errusiarra jan dut. Irentsi. Gustura, gainera. Eta gero gazta pixka bat. Txokolateak ere tentatu nau. Baina zerbaitek stop egin du nire buruan. Eta sofán eseri naiz. Manta azpian. Telebista piztu dut. Baina ezerk ez du baretu nire ezinegona. Liburu bat hartu dut, baina lerro artean txokolatea ikusten dut. Armairura joan eta bi ontza hartu ditut. Kosk, kosk, kosk. Goxoa zegoen txokolatea. Lasaituak gutxi irauten dit, ordea. Berehala botagura berriz. Eta biguina. Eta hiru hilabete hauek lehenbailehen pasatzeko nahia. Desioa. Beharra. Obsesio bihurtu da niretzat janaria. Eta martxa honetan gehiegi lodituko naizela pentsatzen hasi naiz. Madarikatua haurdunaldia! Pasatuko dela esaten didatenean ahotsa etorri zait berriz burura. Eta lasaitu egin naiz. Lagun bati deitu diot. Ea zer kontatzen didan. Ea beste zerbaitetan pentsatzeak nire haurdunaldia ahaztarazten didan, eta botaka egiteko gogoia. Kafetxo bat hartzera gonbidatu nau lagunak. Baina *kafea* hitza entzute hutsak goragalea ematen dit. «Coca-cola bat hartuko dugu!» esan dit, animatu nahian. Baina bat-batean ohartu naiz ez daukadala kalera ateratzeko gogorik. Ez naizela batere eder ikusten armairuan ditudan arrokekin. Kristoren tximak ditudala, eta ez dudala ez gogorik ez indarririk ilea txukuntzen hasteko. Berdin dit nire itxurak. Nahi dudan bakarra goragalea joatea da. Eta nekea. Eta egun osoa sofán etzanda egotea. Erabat antisozial bihurtzen ari naiz. Lasai. Pasatuko dira 12 aste hauek. Sentitzen ari naizen guztia normala omen da. Normala.

ZENBAT NEURTZEN DU JADA?

Den-dena jakin nahi dut. Zenbat neurtzen duen, zer pisu duen, nolakoa den... Zapaburu bat hazten ari zait sabelean eta sekula ez bezala ezagutu nahi dut zein den giza garapenaren prozesua.

8 ASTEKO NAGO. Bi hilabete. Liburuak irakurri ditut eta badi-rudi une honetan gure txikiak 4 cm inguru neurtzen duela, 2-3 gramoko pisua dauka eta enbrioia izateari utzita, fetu bihurtu da, umeki. Burua, besoak eta gorputza mugitzen ditu. Giharrak, nerbioak eta hezur-muina ere osatu dira eta atzamarrak zein behatzak guztiz banatuta daude.

Irakurri dudanez, 11 asterekin haurrak atzamarra zupatzen du. Uterotik kanpo dagoenean elikatze mugitu behar dituen giharrak garatzen ditu modu horretan. Bitxia. Mirari bat da prozesu guztia. Sinestezina. Hain guzua txikia nola egunez egun hazten den, pertsona bihurtu arte. Bere esku eta oinekin, taupadaka dabilen bihotzarekin, arnasa hartzeko beharrezko dituen birikekin, odola garbituko dion gibelarekin, munduan diren kolore denak ikusten lagunduko dioten begiekin. Mirari eder bat da. Bizitzan den guzarik ederrena da pertsona bat munduratzea. Eta zure baitan nola hazten den sentitzea. Bi hilabeterekin hasten omen dira garatzen sexu-organoak ere. Ai ene! Zer izango ote da? Neska? Mutila? Berdin dit, dena ondo joatea espero dut. «Eta biak badira, zer?» bota dit norbaitek. «Bikiak badituzu, zer?». Ai ene! Hori eromena! Lana! Buruko mina! Nekea!

Tira, bale, egia esango dut. Aitortu beharra daukat. Niku-
keran, nahiago haur bakarra izatea eta... neska bada hobeto.

Alaba izan naiz orain arte. Laster ama bihurtuko naiz. Ai ama!

GAUR EZ DUT BATERE LORIK EGIN. Gau osoa eman dut ohean bueltaka. Buruari bueltak emanaz. Zalantzaz beteta. Ikara sartu zait. Beldurra. Gai izango al gara ume hau hazteko? Guk nahi genukeen bezala hezteko? Eta nola aldatuko zaigu bizitza? Prest al gaude horretarako? Izan ere, hain ondo geunden! Zer behar geneukan ume bat izateko? Bikote bezala bikain, gure afaritxoak, irteerak, bidaiak, lagunekin bazkariak, zinemara, kontzertuetara, parrandaxoren bat tarte-ka, sofan etzan eta domeka arratsaldeak nagikerian pasatu... Akabo horiek denak. 9 hilabete barru txiki honek erabat bereganatuko du gure bizitza. Berak aginduko du gugan. Berak markatuko digu erritmoa. Berari begira eta berarentzat biziko gara oso-osorik. Lorik egin gabeko gau amaigabeak. Sofan botata luze egoteari, agur. Goizeko zazpiak arteko gaupasen ondoan ohean eman izan ditugun orduen gozatua, akabo. Dena aldatu egingo da. Ia dena. Eta aldaketek beldurra ematen dute. Zertarako aldatu ondo bazaude? Zer behar zerotik hasteko? Bikote-harremana kolokan jartzeko? Agian hainbeste desiratzen ez zenuen ume hori munituratzeko? Benetan ama izan nahi al dut? Ez al da erosoagoa bizitza osoan alaba izatea? Nik amari esandakoak aurpegiatuko al dizkit etorkizunean niri alabak?

Gogoan daukat amak sarri esaten zidala gauzak beste era batera ikusiko nituela ama bihurtzen nintzenean. Ez nion kasurik egiten. Agian ez nuelako ezer ikusi nahi. Beharbada, ama izate hori oso urrun zegoelako niretzat. Behin baino gehiagotan pentsatu izan nuelako ni ez nintzela sekula ama izango. Ez nuela inoiz seme-alabarik edukiko. Umeek arazoak ekartzen dituzte. Bereko hutsak dira. Errebeldeak. Ez dute baloratzen beraiengatik egiten duzun guztia. Inkontziente hutsak dira. Bizitzan ondo pasatzea soilik da euren helburua. Eta erantzukizunak besteei eskatzea. Ama izateak kontrako espaloian jartzen zaitu. Seme-alabak bihurtzen dira ardura nagusi. Haiei begira bizi zara. Arduratuta. Kezkatuta. Zure zorionaren gaintik dago haien poza. Nik amari sarri esaten nion alabok ez genuela izan behar bere zorionaren ardatzak. Eta irudipena daukat ni amaren berdina izango naizela nire alabekin. Oraindik jaio ez den txikitxo honengatik dena emateko prest nagoela sentitzen dudalako jada. Ama izatea besteei begira bizitzea da. Bizitzan hartzen diren erabaki guztien artean horrek aldatzen zaitu gehien. Ama izateak aldatzen dizu gehien bizitza. Bizitzarekiko ikuspegia, balioak, nahiak, ilusioak, penak... Amari esaten nizkionak gogoan ditut. Niri horiek entzutea tokatuko zait etorkizunean. Zeinen ondo ulertzen ditudan orain amak hainbeste aldiz errepikatutako hitzak! Ez baita gauza bera ama izatea edo alaba izatea. Eta orain, alaba izaten jarraitu arren, ama bihurtuko naiz.

Halere... nire bizitzak aldaketa baten beharra al zuen? Edo adinagatik, inguruagatik, tokatzen delako hartu dugu erabakia? Askorik pentsatu gabe, neurriak hartzeari laga eta, bingo! Bi marra arrosa testean. Ez dakit, ba. Sabelean hazten ari den haur hau agian ez da hain desiratua. Gainera, momentuz ez nau batere ondo sentiarazi. Non dago hainbestetan entzun dudan seguritate hori? Noiz etorriko o zait niri hormona positiboen festa? Noizko ausardia hori? Noiz sentituko naiz munduko emakumerik ederrena, eta zorio-

nekoena eta pribilegiatuena eta... Botagura honek ez dit atse-
denik ematen, eta pentsatzen dut horrek eragin dizkidala pen-
tsamendu ezkorrak. Zalantzak. Ispiluan ikusi dut nire sabe-
la. Zeharka ipinita ere, apenas nabaritzen den ezertxo. Ondo
egongo al da? Esan nahi dut, ondo ari al da hazten? Nire pen-
tsamenduek ez diote eragingo, ezta? Ai ama! Posible da hau-
rrak nik pentsatzen eta sentitzen dudan guztia sentitzea. Eta
baliteke hain desiratua ez dela esan dudanean berak ere ez
duela munduratu nahi erabakitzea. Tira, tira, ez ditzadan gau-
zak bere onetik atera.

Emakumea naiz. Eta haurdun nago. Bi arrazoi badira
horiek zalantzaz beteta egoteko. Bi arrazoi potolo kezkatu-
ta bizitzeko. Eta galderaz beteta. Erantzunik gabeko galde-
rak. Buruaren boterea era positiboan garatzeko gai izango
banintz... Ea, egin dezadan proba. Nire bizitza aldatu egin-
go da, bai. Eta? Nork esan du aldaketak txarrak direla? Nork
esan du ume honek ez gaituela are zoriontsuago egingo. Edo
gure hutsuneak ez dituenik beteko? Baliteke behar dugun
osagaia izatea. Eta bizitzarekiko, munduarekiko ikuspegi
berri bat ematea.

Aldaketa guztiek sortzen dute ikara. Baina honakoa neuk
aukeratutako aldaketa izan da. Buruko minak, nekeak eta
botagurak pasatuko dira. Begira, begira... Nire sabela puz-
tuago sentitzen dut. Mokorrak zabaltzen ari zaizkit. Ez dago
dudarik. Txikia hazten ari da. Baita ni ere. Fisikoki. Eta men-
talki.

ODOLA!!!

Gaur odol pixka bat galdu dut. Hau seinale txarra da.

HAURDUN NAGOELA JAKIN DUDANETIK, ohitura daukat txiza egin eta gero papera begiratzeko. Badaezpada. Gaur ikaragarritzko sustoa hartu dut. Paperak kolore arrosa zuen. Arrasto leuna zen, baina gorri argia. Odolaren kolorea. Odol ari naren tonalitatea. Ez nekien zer egin. Hantxe egon naiz, komunean eserita. Ez gora, ez behera. Ez atzera, ez aurrera. Halako batean, dardara sartu zaidan arte. Eta bihotzaren azelerazioa baretzeko-edo, eskura ditudan aldizkari eta liburuetan bilatu dut: odola. Zer esan nahi du horrek? Haurra galdu dudala? Galtzeko arriskua dudala? Badaezpada ere sofán eseri naiz. Mugitzeak berak beldurra ematen dit. Odola areagotuko balitz bezala. Jarioa ugaritu. Mugituz gero abortua izateko aukerak ugarituko balira bezala. Nonbait entzun izan dut odol-jarioa izaten dutenei «atsedena» hartzeko esaten diela medikuak. Odola, odola, odola... Non dago hitz madarikatu hori? Abortu hitza ere agertzen da. Akabo dena. Amaitu dira ametsak, ilusioak eta pozak. Baita zalantzak eta kezkek ere. Eta orain, sekula baino behar handiagoa dut ume hau izateko. Inoiz baino nahi gehiago eskuen artean izateko. Gure artean izateko. Hemen jartzen duenez... «Uste den baino ohikoagoa da odol-jarioak izatea haurdunaldian. Bost emakumetatik batek odola galtzen du haur-

dunaldiaren lehen erdian, eta horrek ez du esan nahi arazorik dagoenik, ez haurarentzat ez eta amarentzat ere. Ez du esan nahi abortu bat izan duzunik. Lasai hartu eta medikuari deitu lehenbailehen» (www.bebesymas.com). Medikua! Hori da! Emaginari deitu diot. Pare bat galdera egin dizkit: ea zer kolorekoa den odola eta zenbatekoa jarioa. Gero, ohean edo sofan lasai egoteko esan dit, atsedena hartzeko, eta odol-galerak kontrolatzeko. Pare bat egunetan ez bada baretzen edo jarioa indartu egiten bada, medikutara joan behar dut.

Bi egun luuuuuuuuuzee horietan txiza egitea azterk eta bihurtu da. Papera pasatzea kontrola. Eta odolaren tonalitateari eta jarioari buruzko neurriak hartzea, obsesioa. Zer da normala? Nola jakin kolore arrosa edo marroia edo fukisia dela? Nik beti pentsatu izan dut koloreak bereizten aparta naizela. Beti pentsatu izan dut badudala koloreak konbinatzeko gaitasuna. Eta orain, paperean agertzen den odolaren arrastoak zein kolore duen zehazteko orduan, dudak ditut. Zer den larri egotea. Zer den erabat ezjakin sentitzea. Ez baita gauza bera kamiseta eta praka konbinatzea edo zure odolgalera arina edo larria den baloratzea. Tira, kantitatea, gutxienez, urria da. Zikindu egiten dut. Besterik ez. Eta badirudi hori seinale ona dela. Kasu egingo diot emaginari. Eta amari. Eta lagunari. Eta aldizkariari. Hau erabat normala da. Ez da ezer gertatzen. Odola galtzeak ez du zertan joan *abortu* hitzaren ondoan.

BOST EMAKUMETATIK BATEK IZATEN DU ODOL-GALERAREN BAT HAURDUNALDIAREN LEHEN ERDIAN. ETA EZ DA EZER GERTATZEN.

*Bihotz-taupadak oso fuerte entzuten ziren
eta burua, hankak, eskuak... dena zegoen oso
formatuta. Nola mugitzen zinen, txikitxo!*

12 ASTE BETE DITUT. Pasatu da *arriskua*. Esaten dutenez, lehen hamabi asteetan dago haurra galtzeko arriskurik handiena. Hortik aurrera ere gerta daiteke zerbait, arazoak izan daitezke, baina badirudi hiru hilabete horietan guzatzen dela mirariaren ehuneko laurogei. Eta orain haurra ikusteko ordua iritsi da. Hainbeste desiratutako ekografia egingo didate azkenean. Guk haurra ikusiko dugu eta ginekologoek neurriak hartuko dituzte behar bezala hazten ari den jakiteko.

Ginekologoarengana joatea ez da gauza xamurra. Ez dut uste inori gustatzen zaionik gerritik behera biluzi, izara antzeko batekin estali eta eskuohean etzatea hankak zabalik dituzun bitartean. Bada, ekografia, 12 asteke ekografia, horrela egiten da. Hankak zabalik, esan nahi dut, eta gerritik behera biluzik zaudela. Izan ere, ekografia baginala da. Halere, gehienetan ez bezala, oraingoan ez du medikuak sortzen urduritasuna, ordenagailuaren pantailan agertzen den irudiak baizik. Zuri-beltzeko marrazki biziduna izango balitz bezala, zirriborroa ikusten da hasieran. Ginekologoak, hitzuna bada, agertzen ari denari buruzko xehetasunak eman-go dizkizu: hemen dago burua, hau sabela da, ikusten nola mugitzen diren hezurak? Gerta daiteke medikuak hitzik ez esatea eta zuk irudietan agertzen dena zer den apenas

bereiztea. Galdetu. Beldurrik gabe. Une berezia da zure estreina haurra lehenbiziko aldiz ikusten duzu momentua. Eta dena jakiteko eskubidea duzu. Zer den zer Zenbat neurtzen duen. Dena ondo dagoen.

Halako batean, bihotza entzuteko aukera izango duzu: tak-tak-tak-tak... Taupada azkarrak sortzen ditu 12 asteko haur baten bihotzak. Azkarrak eta bortitzak. Itxuraz, minutuko 170 pultsazio ditu fetu batek, heldu batek halako bi! Inpresioa egiten du eta ia-ia esan daiteke taupada horiek entzutean zarela lehen aldiz guztiz kontziente zure sabelean bizitza ari dela sortzen. 15 cm inguru neurtzen duen haurra bizirik dago eta mugitu egiten da. Bere zuri-beltzek o argazkiak ez du zerikusirik ez dakit zenbat megapixel dituen kamera digitalarekin ateratako erretratuaren kalitatearekin. Baina irudipena daukazu zapaburutxo hori inoiz ikusi duzun gauzarik ederrena dela. Eta sakelakoarekin argazkia aterako diozu medikuak emandako ekografiari. Edo eskanerretik pasatuko duzu. Eta zure ingurukoak ikaratuko dituzu zure haur ezin *ederragoaren* argazkia bidaltzean. Hortxe hasten da *amatasunaren sindromea*. Zuk bizi duzun hori besteentzat zuretzat bezain interesgarria dela sinetsita bizi duzun etapa berezia. Portzierto, *aitatasunaren sindromea* ere agertzen da. Nola ez.